Epaitegian. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko maiatzaren 13a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz a 13 de mayo de 2003.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

## Zk-3696

AGINDUA, 2003ko apirilaren 14koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren estatutuak onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.22 artikuluan ezartzen denez, Profesionalen Elkargoen eta Tituludun Lanbideen alorreko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere.

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aipatu eskumenaren indarrez eman zen. Lege horren 33. eta 45. artikuluetan ezartzen denez, elkargoen estatutuak eta horien aldaketak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinarazi beharko zaizkio. Gero, sail horrek, estatutuok legearen barruan daudela egiaztatu ondoren, behin betiko onartuko ditu, agindu baten bitartez. Azkenik, agindua, estatutuekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatuko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren estatutuak legearen araberakoak direla egiaztatuta, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Onarpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren estatutuak onartzea.

*2. artikulua.–* Argitalpena.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

## N°-3696

ORDEN de 14 de abril de 2003 del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social por la que se aprueban los estatutos del Consejo de Farmacéuticos del Pais Vasco.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los Artículos. 36 y 139 de la Constitución Española.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, dictada en virtud de la citada competencia, establece en sus artículos 33 y 45 que los estatutos del Consejo, así como su reforma, serán comunicados al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de los Estatutos del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

RESUELVO

*Artículo 1.–* Aprobación

Aprobar los Estatutos del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco.

*Artículo 2.–* Publicación

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren estatutuak agindu honen eranskinean argitara daitezela agintzea.

*3. artikulua.*– Inskripzioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren estatutuak Tituludun Lanbideen Erregistroan inskriba daitezela agintzea, erregistroa formalki osatzen den unean.

Azken xedapen bakarra.– Eraginkortasuna.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 14a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTIKARIEN ELKARGOEN KONTSEILUA

ESTATUTUAK

ATARIKO TITULUA

*1. artikulua.*– Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua zuzenbide publikoko korporazio bat da, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen bidez aitortu eta babestutakoa; nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna du; Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Botikarien Elkargoak mailarik gorenenean ordezkatzea eta koordinatzea eta horien arteko lankidetza bultzatzea izango du helbururik funtsezkoena, gizartearen eta ordezkatzen dituen elkargoen interes eta behar orokorrak kontutan hartuta.

*2. artikulua.*– Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua azaroaren 21eko 18/1997 Legearen bidez eta estatutu hauen arabera eraenduko da. Kontseiluaren barne egitura eta funtzionamendua demokratikoak izango dira.

*3. artikulua.*– Kontseiluaren izena Consejo de Farmacéuticos del País Vasco - Euskal Herriko Farmazilarien Kontseilua izango da.

Helbidea txandakoa izango da, une bakoitzean lehendakaritza duen elkargoaren egoitza izango baita, ohiko eta ezohiko bilera eta bilkurak non egiten diren gorabehera.

Kontseiluaren lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoarena izango da.

LEHENENGO TITULUA

Lehenengo atala.– Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren egitekoak.

Ordenar la publicación de los Estatutos del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco como Anexo a la presente Orden.

*Artículo 3.*– Inscripción

Ordenar la inscripción de los Estatutos del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

Disposición Final Única.– Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2003

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

CONSEJO DE COLEGIOS OFICIALES DE FARMACEÚTICOS DEL PAIS VASCO

ESTATUTOS

TITULO PRELIMINAR:

*Artículo 1.*– El Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, es una corporación de Derecho Público, reconocida y amparada por la ley 18/97, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales del País Vasco, goza de personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar y tiene como finalidad la suprema representación, coordinación y cooperación de los Colegios de Farmacéuticos de Alava, Gipuzkoa y Bizkaia, en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad y de los colegios a los que representa.

*Artículo 2.*– El Consejo de Farmacéuticos del País Vasco se regirá por lo dispuesto en la ley 18/97 del País Vasco y los presentes estatutos. La estructura interna y el funcionamiento del Consejo serán democráticos.

*Artículo 3.*– El Consejo se denominará Consejo de Farmacéuticos del País Vasco- Euskal Herriko Farmazilarien Kontseilua.

El domicilio será rotatorio y coincidirá con la sede del colegio que ostente la presidencia en cada momento, y ello con independencia del lugar donde se realicen las reuniones y sesiones tanto ordinarias como extraordinarias.

El ámbito territorial del Consejo será el correspondiente a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

TITULO PRIMERO

Seccion Primera.– De las funciones del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco.

*4. artikulua.*– Berezko egitekoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluari azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluak izendatzen dizkion egitekoak dagozkio, bere lurralde-eremuaren barruan.

2.– Eskumen orokorrez gain, oinarrizko egiteko hauek beren-beregi izendatu zaizkio:

1) Legeen esparruan eta eskumenen barruan, botikarien lanbidearen egikaritzea antolatzea, ordezkatzen dituen botikarien elkargoekin koordinatuta.

2) Lanbidearen jarduna herritarren osasuna sustatzera bideratuta dagoen zaintzea eta bultzatzea, osasun arloko gainerako lanbideekin eta herri agintariekin elkarlanean arituz helburu hori lortzeko.

3) Dagokion eremuan, lanbidea ordezkatzea eta defendatzea Administrazioan, instituzioetan, epaitegietan, entitateetan eta partikularren aurrean, kalterik egin gabe elkargo bakoitzak dituen eskumenei; lanbidearen interesei eta Kontseiluaren helburuei eragiten dieten kausa eta auzietan alderdi izateko legitimazioa izango du, eta ahalordeak egiletsi ahalko ditu ordezkatze eta defentsa lanak egiteko.

4) Herri administrazioen batzorde eta aholku batzordeetan parte hartzea, horiek eskatzen diotenean edo legeetan aurreikusita dagoenean.

5) Jaurlaritzak iritzipean uzten dizkion araugintzaproiektuei buruzko txostena egitea, 18/1997 Legearen 54. artikuluan jartzen duen moduan.

6) Administrazio Sanitario, instituzio eta beste entitate batzuekin elkarlanean aritzea interes komunak lortzen eta, bereziki, erabiltzaileei asistentzia farmazeutikoa egokia ematen; horretarako, behar diren akordio, kontratu eta itunak egingo ditu.

7) Indarrean den legediaren kontrako jarduera irregularren baten berri izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari jakinaraztea.

8) Euskal Autonomia Erkidegoko botikarien elkargoen jarduera koordinatzea; elkargoen artean sortzen diren arazoak arbitraje-bidez ebatziko ditu.

9) Behar diren neurriak hartzea elkargoek Kontseiluak bere eskumenekoak diren arloei buruz hartzen dituen ebazpenak bete ditzaten.

10) Botikarien lanbidearen arau deontologiko komunak bildu eta prestatzea, eta betetzen diren zaintzea.

11) Elkargoek agindutako egintzen aurka aurkezten diren errekurtsoak ebaztea.

12) Elkargoetako eta Kontseiluko gobernu organoetako kideekin diziplina-ahalmena erabiltzea, 18/1997 Legearen 19.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

*Artículo 4.*– Funciones Propias.

1.– Corresponde al Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, en su ámbito territorial, el ejercicio de las funciones que le atribuye el artículo 42 de la ley 18/1997, de 21 de Noviembre.

2.– Sin perjuicio de la competencia general, le están atribuidas específicamente las siguientes funciones básicas:

1) Ordenar en el marco de las leyes y en el ámbito de su competencia el ejercicio de la profesión farmacéutica, en coordinación con los Colegios de Farmacéuticos a los que representa.

2) Velar y promover para que el ejercicio de la profesión esté dirigido a la promoción de la salud de los ciudadanos, cooperando con las demás profesiones sanitarias y poderes públicos en la consecución de este objetivo.

3) Ostentar en su ámbito la representación y defensa de la profesión farmacéutica ante la Administración, Instituciones, Tribunales, Entidades y Particulares, sin perjuicio de las atribuciones propias de cada Colegio, con legitimación para ser parte en cuantos litigios y causas afecten a los intereses profesionales y fines del Consejo, pudiendo otorgar poderes para su representación y defensa.

4) Participar en los órganos consultivos y comisiones de las Administraciones Públicas cuando éstas se lo requieran o esté previsto en las leyes.

5) Informar los proyectos normativos que someta el Gobierno en los términos previstos el artículo 54 de la Ley 18/97.

6) Colaborar con la Administración Sanitaria, instituciones y otras entidades en el logro de los intereses comunes y en particular en procurar una adecuada asistencia farmacéutica para los usuarios, llevando acabo los acuerdos, contratos y conciertos que sean necesarios para lograr este fin.

7) Comunicar a la Administración de la Comunidad Autónoma toda actuación irregular de la que se tenga conocimiento, contraria a la legalidad vigente.

8) Coordinar la actuación de los Colegios de Farmacéuticos del País Vasco, dirimiendo en vía arbitral los conflictos que surjan entre los Colegios.

9) Adoptar las medidas necesarias para que los Colegios cumplan las resoluciones del Consejo, dictadas en materia de su propia competencia.

10) Recoger y elaborar las normas deontológicas comunes de la profesión farmacéutica y velar por su cumplimiento.

11) Resolver los recursos que se interpongan contra los actos dictados por los Colegios.

12) Ejercer la potestad disciplinaria en relación con los con los miembros de los órganos de gobierno de los Colegios y Consejo, conforme a lo previsto en el artículo 19.3 de la ley 18/97.

13) Kontseiluko estatutuak onartzea eta aldatzea, 18/1997 Legearen 45. artikuluan jasotakoaren arabera.

14) Kontseiluaren aurrekontua onartzea, eta Kontseiluko gastuetan elkargoek ordaindu beharrekoa finkatzea, elkargokideen kopurua kontuan hartuta.

15) Elkargoetako gobernu-organoetarako hauteskundeen deialdiak koordinatzea, horien haustekunde-arauak betetzen direla zaintzea eta aurkezten diren errekurtsoak ebaztea.

16) Elkargoen funtzionamenduari buruz aurkezten diren kexak ebaztea.

17) Elkargoen ordez, lanbiderako interesgarriak diren ekintzak eta zerbitzuak sustatu, eratu eta antolatzea, botikariei etengabeko prestakuntza emateko eta elkargoei helburuak lortzen laguntzeko.

18) 18/1997 Legearen 43. artikuluan jasotakoaren arabera Administrazioak eskuordetzen dizkion egitekoak.

19) Lankidetza-akordioak egitea Espainiako Botikarien Kontseilu Nagusiarekin, beste erkidego batzuetako botikarien kontseiluekin eta botikarien lanbidea Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ordezkatzen duten instituzioekin.

20) Botikarien lanbiderako interesgarriak edo onuragarriak izan daitezkeen egitekoak, Kontseiluaren helburuak betetzen lagunduko dutenak, eta legeek izendatzen dizkiotenak edo eskuordetzen zaizkionak.

Bigarren atala.– Gobernu-organoen osaera eta antolamendua.

*5. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluko gobernu-organoak dira: Osokoa eta Lehendakaritza Organoa.

*6. artikulua.–* Kontseiluaren Osokoa bederatzi kidek osatuko dute: elkargokide gutxien dituen elkargoa ordezkatuz bi, elkargokide kopuruaren arabera hurrengoa den elkargoa ordezkatuz hiru, eta elkargokide gehien dituen elkargoa ordezkatuz lau.

Elkargo bakoitzeko ordezkari batek elkargoko lehendakari izan beharko du nahitaez.

Osokoaren gainerako kideak elkargoetako gobernu-batzordeek izendatuko dituzte.

*7. artikulua.–* Kide guztiek izango dute Osokoan hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea; berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren kalitatezko botoak ebatziko du. Kideek beste kide bati eskuordetu deizaioke-te botoa.

*8. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluko lehendakaritza Euskal Autonomia

13) Aprobar y modificar sus propios estatutos de conformidad a lo previsto en el artículo 45 de la ley 18/97.

14) Aprobar su propio presupuesto y fijar, en función del número de colegiados, la participación de los Colegios en los gastos del Consejo.

15) Coordinar la celebración de las convocatorias de elecciones a los órganos de gobierno de los Colegios, velando por el cumplimiento de las normativas electorales de éstos y resolviendo los recursos que puedan formularse.

16) Resolver las quejas que sobre el funcionamiento de los Colegios puedan formularse.

17) Fomentar, crear y organizar, con carácter supletorio a los Colegios, actividades y servicios de interés para la profesión que tengan por objeto la formación continuada de los farmacéuticos y ayuden a los Colegios al cumplimiento de sus fines.

18) Ejercer las funciones que les sean delegadas por la Administración según lo previsto en el artículo 43 de la ley 18/97.

19) Establecer acuerdos de colaboración con el Consejo General de Farmacéuticos de España, Consejos Farmacéuticos de otras Autonomías y otras instituciones que representen a la profesión farmacéutica fuera del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

20) Todas aquellas funciones que sean beneficiosas o tengan interés para la profesión farmacéutica y se encaminen al cumplimiento de los objetivos del Consejo, así como cualquier otras que le atribuyan las leyes o le sean delegadas.

Sección Segunda.– Organización y composición de los órganos de Gobierno.

*Artículo 5.–* Los órganos de gobierno del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco son: El Pleno y el Organo Presidencial.

*Artículo 6.–* El Pleno del Consejo estará constituido por nueve miembros, dos en representación del colegio con menor número de colegiados, tres en representación del colegio siguiente en cuanto a número de colegiados y cuatro en representación del colegio con mayor número de colegiados.

Uno de los representantes de cada Colegio será obligatoriamente el presidente del mismo.

Los restantes miembros de órgano plenario serán designados por las Juntas de Gobierno de los respectivos Colegios.

*Artículo 7.–* Todos los consejeros tendrán voz y voto en el pleno, resolviendo en caso de empate el voto de calidad del presidente. Los consejeros podrán delegar su voto en otro miembro del pleno.

*Artículo 8.–* La presidencia del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco corresponderá de modo rotato-

Erkidegoko botikarien elkargoetako lehendakariek hartuko dute, txandaka, bi urtean behin. Bizkaiko Botikarien Elkargokoa izango de lehenik, Gipuzkoakoa gero eta Arabakoa azkenik.

*9. artikulua.–* Kontseiluko Osokoaren kide izateko, beharrezkoa izango da Araba, Gipuzkoa edo Bizkaiko elkargoetako gobernu-batzordeko kide izatea.

*10. artikulua.–* Osokoaren kideek bi urte igaro ondoren utziko dituzte karguak, lehendakaritzaren ohiko txandaketa gertatzen den egun berean. Halaber, elkargoko gobernu-batzordeko kide izateari uzten dioten unean bertan utziko dute Kontseiluan duten kargua.

*11. artikulua.–* Osokoaren kide batek kargua uzten duenean, kide horren elkargoko gobernu-batzordeak ordezko bat izendatuko du, behar diren baldintzak betetzen dituztenen artean.

*12. artikulua.–* Osokoaren kideen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Kontseiluko Osokoaren kideek eskubide hauek dituzte:

a) Erabaki, ekimen eta ekintza guztietan Kontseiluan aktiboki parte hartzekoa, hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea dutela.

b) Autonomiari eustea, bere lurralde eta eremuan berari baino ez dagozkion alor, gai eta eskumenetan.

c) Kontseiluko kontu eta finantza-ondarearen egoerari buruzko informazioa jasotzekoa.

d) Estatutuak aldatzeko proposamenei buruzko informazioa jasotzekoa, Kontseiluak eztabaidatu eta onartu aurretik.

e) Kontseilua desegiteko proposamenaren eta likidazio-faseei buruzko informazioa jasotzekoa, bai eta ondasun eta eskubideen norakoa jakitekoa ere.

f) Estatutu hauei jarraituz Kontseiluko organoek hasten eta ebazten dituzten diziplina-prozedurei buruzko informazioa jasotzekoa.

g) Estatu hauen eta, oro har, indarrean den legediaren arabera dagozkien eskubide edo ahalmen guztiak.

2.– Osokoaren kideen betebeharrak dira:

a) Osokoaren bileretara joatea.

b) Kontseiluaren interes orokorrerako komeni denean, kasuan kasuko ebazpen, gertakari, zirkunstantzia edo egintzak jakinaraztea Osokoari.

c) Kontseiluaren ebazen, akordio edo arauak jakinaraztea, eurentzat interesgarriak edo eurei eragiten dietenean.

d) Estatutu hauetatik eta oro har aplikatzekoa den arauditik sortzen diren gainerako betebeharrak.

rio y por periodos de dos años a los presidentes de los Colegios de Farmacéuticos del País Vasco. Accederá en primer lugar a la presidencia el Colegio de farmacéuticos de Bizkaia, continuando por este orden el Colegio de Gipuzkoa y el Colegio de Alava.

*Artículo 9.–* Para ser nombrado miembro del Pleno del Consejo, será requisito ser miembro de la Junta de Gobierno de los Colegios de Alava, Gipuzkoa o Bizkaia.

*Artículo 10.–* Los miembros del Pleno cesarán a los dos años, coincidiendo con la fecha en que se produzca el relevo ordinario en la presidencia. A su vez, cesarán de forma automática en el momento que pierdan su condición de miembros de la Junta de Gobierno de su respectivo colegio.

*Artículo 11.–* Cuando se produzca el cese de algún componente del Pleno, la Junta de Gobierno del Colegio al que pertenezca el miembro cesado nombrará a su sustituto, siempre que concurran en el mismo los requisitos previstos.

*Artículo 12.–* Derechos y deberes de los miembros del Pleno.

1.– Los miembros del Pleno del Consejo ostentarán los siguientes derechos:

a) Participar activamente en el Consejo, con voz y voto, en todas sus decisiones, iniciativas y actividades.

b) Mantener su autonomía en cuanto a las materias, asuntos y competencias exclusivas de su territorio y ámbito.

c) Ser informados sobre el estado de cuentas y financiero-patrimonial del Consejo.

d) Ser informados de las propuestas de Modificación de Estatutos, previamente a su debate y aprobación por el Consejo.

e) Ser informados, igualmente, de la propuesta de Disolución del Consejo, y de las fases de su liquidación, incluido el destino de sus bienes y derechos.

f) Ser informados de los procedimientos disciplinarios que, con arreglo a los presentes Estatutos, incoen y resuelvan los órganos del Consejo.

g) Cuantos otros derechos o facultades se deriven de los presentes Estatutos y, en general, de la legislación aplicable.

2.– Son obligaciones de los miembros del Pleno:

a) Acudir a las reuniones del Pleno.

b) Dar cuenta en el Pleno de todas aquellas actuaciones, circunstancias, hechos o resoluciones de las que fuera conveniente informar, en interés general del Consejo.

c) Comunicar y tener informados a sus respectivos colegiados de cuantas resoluciones, acuerdos, o normas emanadas del Consejo les afectasen o fueran de interés.

d) Cuantas otras obligaciones se deriven de los presentes Estatutos y en general de la normativa aplicable.

*13. artikulua.–* Kontseiluko lehendakariari dagokio:

1.– Kontseilua ofizialki ordezkatzea herri agintarien, entitate, korporazio eta gainerakoen aurrean.

2.– Osokoaren bileretan mahaiburu izatea; eztabaidak zuzenduko ditu eta berdinketak gertatzen direnean kalitatezko botoa izango du.

3.– Kontseiluko funtsen inbertsioetarako ordainketak agintzea.

4.– Kontseiluak parte hartu behar duen gai guztietan parte hartzea; lehendakariordeari eskuordetu ahalko dio egiteko hori.

5.– Bileretako gai-zerrenda finkatzea.

6.– Prokuradoreei ahalordeak ematea eta letradua izendatzea, Osokoak erabakitzen dituen mota guztietako ekintzak baliatzeko edo eskubideei buruz auzitan aritzeko.

*14. artikulua.–* Kontseiluko Osokoak lehendakariorde bat, idazkari bat eta diruzain bat izendatuko ditu.

Ezarritako errotazio-hurrenkeraren arabera Kontseiluaren hurrengo lehendakaritza dagokion elkargoko lehendakaria izango da lehendakariorde; Kontseiluko lehendakaria ordezkatuko du ez dagoenean edo gaixorik dagoenean.

Lehendakaritza duen elkargokoak diren Osokoaren kideen artean izendatuko da Kontseiluko idazkaria.

Idazkariari dagokio osokoaren bileraren aktak egitea eta testigantzak, komunikazio arruntak, zirkularrak eta egiaztagiriak egitea, lehendakariaren oniritzia duela; akta, espediente eta erregistroen liburua bere ardurapean egongo da.

Diruzainari dagokio Kontseiluko funtsak zaintzea eta bilketa egitea, lehendakariak agintzen dituen ordainketak ordaintzea, betetako ekonomia ekitaldiko kontuak urtero formalizatzea, urteko aurrekontuak idaztea, Osokoak onartzeko, eta Kontseiluko bankukontuko funtsak sartzea eta kentzea, lehendakariarekin modu solidarioan.

Diruzainaren kargua aldi berean eduki dezake Kontseiluko idazkariak.

*15. artikulua.–* Osokoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien elkargoetako Kontseiluaren ordezkaritza eta jardute organoa. Gutxienez hiru hilean behin batuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein lekutan.

Kontseiluko lehendakariak eskatuta edo elkargoetako lehendakariren batek eskatuta batuko da.

Lehendakariak egingo du deialdia, eta egin baino 10 egun lehenago bidaliko da; behar bezala justifikatutako presazko kasuetan epe hori motzagoa izan daiteke.

*Artículo 13.–* Corresponden al Presidente del Consejo:

1.–La representación oficial del Consejo ante los poderes públicos, entidades, corporaciones y personalidades.

2.–Presidir las reuniones del Pleno dirigiendo las discusiones y con voto de calidad en caso de empate.

3.– Expedir los libramientos para inversión de los fondos del consejo.

4.– Actuar en toda clase de asuntos en que el Consejo deba intervenir, pudiendo delegar en el vicepresidente.

5.– Fijar el orden del día de las reuniones.

6.– Otorgar el correspondiente mandato de poder a favor de procuradores y designar letrado, para litigar derechos o ejercitar acciones de todo orden que hayan sido acordadas por el Pleno.

*Artículo 14.–* El Pleno del Consejo nombrará a un Vicepresidente, un Secretario y un Tesorero.

La vicepresidencia recaerá en el presidente del colegio al que, según el orden rotatorio preestablecido, corresponda ostentar la próxima presidencia del Consejo, sustituyendo al presidente del Consejo durante su ausencia o enfermedad.

El Secretario del Consejo será nombrado entre los miembros del Pleno que pertenezcan al colegio que ostente la presidencia.

Corresponde al Secretario levantar acta de las sesiones del pleno, extender los testimonios, comunicaciones ordinarias, circulares y certificaciones que se tengan que expedir, con el V.º B.º del presidente, teniendo a su cargo los libros de actas, expedientes y registros.

Corresponderá al Tesorero materializar la recaudación y custodiar los fondos del Consejo, pagar los libramientos que expida el presidente, formalizar anualmente las cuantas del ejercicio económico vencido, redactar los presupuestos anuales para su aprobación por el Pleno, ingresar y retirar los fondos de las cuantas bancarias del Consejo de forma solidaria con el presidente.

El cargo de tesorero podrá ser ostentando de forma simultanea por el Secretario del Consejo.

*Artículo 15.–* El Pleno es el órgano de representación y actuación suprema del Consejo de Colegios de Farmacéuticos del País Vasco. Se reunirá al menos una vez cada tres meses en cualquier lugar del País Vasco.

Podrá reunirse a su vez a instancia del Presidente del Consejo o cuando así lo solicite alguno de los Presidentes de los Colegios.

La convocatoria será ordenada por el Presidente y remitida con una antelación de 10 días a la fecha de su celebración, pudiendo acortarse este plazo en casos de urgencia justificada.

Deialdian gai-zerrenda, eguna, lekua eta lehen eta bigarren deialdiaren ordua jarriko dira; deialdi bien artean 30 minutuko tartea utzi beharko da, gutxienez.

Lehenengo deialdian osokoa balioz eratuko da kideen gehiengo soila dagoenean. Bigarren deialdian, berriz, balioz eratuko da kide kopurua edozein delarik ere.

Gai-zerrendan dauden gaiei buruzko erabakiak baino ez dira hartuko, salbu eta hiru elkargoetako lehendakariak bestelakorik sartzea erabakitzen ez badute.

Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren kalitatezko botoak ebatziko du.

Bozketak isilpekoak izango dira, Osokoaren kideetako batek hala eskatzen badu.

*16. artikulua.–* Osokoaren bileretara hiru elkargoetako lehendakariek eskatzen dituzten elkargokideak joan daitezke.

Osokoak, halaber, elkargoetako teknikariak edo kanpoko aholkulariak joan daitezela eska dezake.

Hirugarren atala.– Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren Erregimen Ekonomikoa.

*17. artikulua.–* Kontseiluko diruzainak urte naturalerako aurreikusitako sarreren eta gastuen ustezko aurrekontu bat prestatu beharko du urtero, zeina Osokoak urteko lehenengo seihilekoan onartu beharko duen.

Epe horretan bertan onartu beharko dira aurreko ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen kontua eta likidazioa.

Osokoak aurrekontu-proiektua onartzen ez badu, aurreko ekitaldiko aurrekontua luzatutzat joko da besterik gabe.

*18. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Elkargoek bidezko eran ordainduko dituzte Kontseiluaren mantenimendu-gastuak.

1.– Aurreko ekitaldiko abenduaren 31n erregistratutako elkargokideen kopuruaren arabera zehaztuko da elkargo bakoitzaren partaidetza-kuota.

2.– Elkargoren batek estatutu hauetan jasotako ekonomia-betebeharrak bete gabe uzten baditu, errekerimendu bi egingo zaizkio ziurtatutako eskutitzen bidez. Elkargo bakoitzaren eskubide guztiak erabiltzeko, beharrezkoa izango da diru-betebeharrak konplituta edukitzea.

3.– Diruzainak kontuak emango dizkio urtero Kontseiluaren Osokoari, onartuak izateko. Osokoak hiru kide izendatuko ditu kontuen ikuskaritza egiteko eta horri buruzko txostena egiteko; horretarako gaitutako entitate baten esku ere utzi dezake lan hori.

En la convocatoria constará el orden del día, fecha, lugar y hora de la primera y segunda convocatoria, mediando como mínimo un intervalo de 30 minutos entre ambas.

El Pleno quedará validamente constituido en primera convocatoria cuando concurran la mayoría simple de sus miembros. En segunda convocatoria quedará validamente constituida con cualesquiera que sea el número de miembros presentes.

Sólo se podrán adoptar acuerdos sobre asuntos que figuren en el orden del día, salvo que se acepte su inclusión por los tres presidentes de los colegios.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple. En caso de empate decidirá el voto de calidad del Presidente.

Las votaciones serán secretas siempre que así lo solicite uno de los miembros del Pleno.

*Artículo 16.–* A las reuniones del Pleno podrán asistir aquellos colegiados cuya presencia sea requerida conjuntamente por los presidentes de los tres colegios.

A su vez, el Pleno podrá requerir la asistencia, en calidad de asesores, del personal técnico de los colegios u asesores externos.

Seccion Tercera.– Régimen Económico del Consejo de Colegios Oficiales del País Vasco.

*Artículo 17.–* El Tesorero del Consejo elaborará con carácter anual un presupuesto de carácter estimativo comprensivo de todos los ingresos y gastos previstos para el año natural, que deberá ser aprobado por el Pleno dentro del primer semestre del año.

En este mismo plazo deberá ser aprobada la liquidación y cuenta de resultados del presupuesto del ejercicio anterior.

En el supuesto de que el proyecto de presupuestos no mereciera la aprobación del Pleno, se considerará prorrogado de forma automática, el presupuesto del ejercicio anterior.

*Artículo 18.–* Los Colegios de Farmacéuticos del País Vasco participarán de forma equitativa en el sostenimiento económico del Consejo.

1.– La cuota de participación de cada Colegio se determinará en función del número de colegiados registrados a 31 de diciembre del ejercicio anterior.

2.– En caso de incumplimiento por algún Colegio de las obligaciones económicas con el Consejo contempladas en estos Estatutos, se llevarán a cabo dos requerimientos mediante carta certificada. Para el pleno ejercicio de los derechos de cada Colegio, será necesario estar al corriente del pago de sus obligaciones económicas.

3.– El Tesorero efectuará anualmente la rendición de cuentas al Pleno del Consejo para su aprobación. El Pleno nombrará a tres de sus miembros para proceder a la auditoría de las Cuentas y evacuar el oportuno informe pudiendo también encomendar esta labor a una entidad facultada para ello.

*19. artikulua.*– Kontseiluak bere jarduerarako behar dituen giza baliabideak eta materialak izango ditu, bere aurrekontuen kontura.

*20. artikulua.*– Kontseiluak baliabide ekonomiko hauek izango ditu:

1.– Elkargoen ekarpenak, urteko aurrekontuetan ezarriko baitira.

2.– Elkargoen ezohiko ekarpenak edo derramak.

3.– Instituzio nahiz hirugarren batzuk eskatuta, agiriak eta irizpenak egin edo zerbitzuak emateagatiko eskubideak.

4.– Kontseiluaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideetatik sortzen den edozein motatako errendimendu.

5.– Kontseiluak jaso ditzakeen diru-laguntza ofizialak, dohaintzak, jaraunspenak edo legatuak.

*21. artikulua.*– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko ikuskaritza-txosten bat egingo da urtero, Kontseiluaren Osokoak xedatzen duenari jarraituz.

Laugarren atala.– Diziplina-erregimena.

*22. artikulua.*– Elkargoetako gobernu-batzordeek hasitako diziplina-prozedurak amaitzen dituzten ebazpenen aurka jartzen diren gora jotzeko errekurtsoak ebazteko ahalmena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren Osokoak.

*23. artikulua.*– Elkargoetako gobernu-organoetako kideek, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilukoek ere, diziplinazko erantzukizuna izango dute elkargoetako estatutuetan eta estatutu hauetan jasotako kasu eta zirkunstantzia beretan.

1.– Ustezko arau-hauspena elkargo bateko gobernu-batzordeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluko kideren bati eragiten badio, Kontseiluaren Osokoak izango du diziplina-espedientea hasi, instruitu eta ebazteko ahalmena, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 19. artikuluko 3. idatz-zatian agindutakoari jarraituz.

2.– Diziplina-espedientea irekitzeko erabakian instruktorea eta idazkaria izendatuko dira; ezingo dira Osokoaren kide nahiz espedientea egin zaionaren elkargoko gobernu-batzordeko kide izan. Osokoak instruktorea eta idazkaria ordezkatu, eta behin-behingoz beste batzuk izenda ditzake; holakorik gertatuz gero, espedientea egin zaionari jakinaraziko zaio.

3.– Instruktoreari eta idazkariari Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluak aplikatuko zaizkie, abstentzio eta errefusatze kasuetan.

*Artículo 19.*– El Consejo dispondrá de los medios personales y materiales que precise para el desarrollo de su actividad a cuenta de sus presupuestos.

*Artículo 20.*– Los medios económicos del Consejo serán los siguientes:

1.– Las aportaciones de los Colegios establecidas en los presupuestos anuales.

2.– Las aportaciones de los Colegios establecidas con carácter extraordinario o derramas.

3.– Los derechos de expedición de todo tipo de documentos, dictámenes o prestación de servicios a requerimiento de instituciones o terceras personas.

4.– Los rendimientos de cualquier clase que puedan obtenerse de los bienes y derechos que integran su patrimonio.

5.– Subvenciones oficiales, donativos, herencias o legados que el Consejo pueda recibir.

*Artículo 21.*– Anualmente se efectuará un informe de auditoría de cada ejercicio presupuestario que será realizado conforme lo disponga el Pleno del Consejo.

Sección Cuarta.– Régimen Disciplinario

*Artículo 22.*– El pleno del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco tendrá la facultad de resolver todos los recursos de Alzada que se interpongan contra las Resoluciones que pongan fin a los procedimientos disciplinarios incoados por las Juntas de Gobierno de los respectivos Colegios.

*Artículo 23.*– Los miembros de las Juntas de Gobierno de los respectivos Colegios, así como los miembros del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, incurrirán en las responsabilidades disciplinarias en los mismos supuestos y circunstancias recogidas en los correspondientes Estatutos Colegiales, así como los presentes Estatutos según corresponda.

1.– Cuando los hechos objeto de presunta infracción afectasen a un miembro de la Junta de Gobierno de un Colegio, o algún miembro del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, será el Pleno de este Consejo quien ostente la facultad para iniciar, instruir y resolver el citado expediente disciplinario, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del Art. 19 de la Ley 18/1997, de 21 de Noviembre.

2.– El propio acuerdo de apertura del expediente disciplinario designará el Instructor y el Secretario, que no podrán ser miembros del Pleno, ni de las Juntas de Gobierno del Colegio al que pertenezca el expedientado. El Pleno, podrá sustituir al Instructor y Secretario, así como eventualmente designar unos nuevos, notificando esta circunstancia al expedientado.

3.– Serán de aplicación al Instructor y Secretario las normas relativas a la abstención y recusación de los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de junio, de Régimen Jurídico de las Administraciones publicas y del Procedimiento Administrativo común.

4.– Zehapen-prozeduraren instrukzioa eraginpekoaren elkargoko estatutuetan agindutakoari egokitu beharko zaio epeei eta sekuentziei dagokienez.

5.– Aurreko idatz-zatian aipatzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute eta berehala exekutatzekoak izango dira; horien aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, edo bestela, zuzenean inpugnatu ahalko dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Bosgarren atala.– Erregimen juridikoa.

*24. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren egintzak eta erabakiak administrazio-zuzenbideari loturik daudenez, estatutu hauetan agindutakoari egokitu beharko zaizkio, eta ordezko izaeraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean ezarritakoari; betiere, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legetik ondorioztatutako espezifikotasunei kalterik egin gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien elkargoetako gobernu-batzordeek hartutako erabakien eta egintzen aurka aurkezten diren gora jotzeko errekurtsoak hartu eta ebatziko ditu Kontseiluak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren Osokoaren erabaki eta egintzen aurka, berriz, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, hil biko epean.

Eskubide kolektibo baten titularrek eta zuzenean eragiten dioten interes legitimoa dutenek daukate aurreko idatz-zatietan aipatutako errekurtsoak aurkezteko legitimazioa.

Hainbat pertsonari eragiten dion erabakiak nahiz ebazpenak direnean, dena delakoa hartu duen elkargokoa den edozein elkargokide legitimatuta dagoela ulertuko da. Edozelan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien elkargoak legitimatuta egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren egitza, erabaki eta ebazpenen aurka errekurtsoa aurkezteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseiluaren egintzek eta ebazpenek administrazio-bidea amaitzen dute; horien aurkako errekurtsoak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan jar daitezke, legeetan ezarritako moduan.

Seigarren atala.– Estatutuak aldatzea.

*25. artikulua.–*

1.– Estatutu hauek gutxienez Kontseiluko Osokoaren kideen laurdenak eskatuta edo elkargo bateko gobernu-organoak proposatuta alda daitezke.

4.– La instrucción del procedimiento sancionador en sus plazos y secuencias se ajustará a lo determinado en los Estatutos del Colegio al que pertenezca el afectado.

5.– Las Resoluciones a que se refiere el apartado precedente que hayan sido adoptadas por el Consejo de Farmacéuticos del País Vasco ponen fin a la vía administrativa, siendo inmediatamente ejecutiva, y podrá ser recurrida potestativamente en Reposición, o ser impugnada directamente ante la Jurisdicción contencioso-administrativa.

Sección Quinta.– Régimen Jurídico.

*Artículo 24.–* El Régimen Jurídico de los actos y acuerdos del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, en cuanto están sometidos al Derecho Administrativo, se ajustarán a lo dispuesto en los presentes Estatutos, y en su defecto a la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de las especificidades derivadas de la Ley 18/1997, de 21 de Noviembre de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales.

El Consejo conocerá y resolverá los Recursos de Alzada que se planteen contra los actos y resoluciones adoptadas por las Juntas de Gobierno de los Colegios de Colegios Farmacéuticos del País Vasco.

En cuanto a los acuerdos y actos del Pleno del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco se podrá interponer el recurso potestativo de Reposición, en el plazo de un mes, o el correspondiente Recurso Contencioso-Administrativo, en el plazo máximo de dos meses.

Están legitimados para interponer los Recursos establecidos en los apartados anteriores, los titulares de un derecho colectivo, así como los que ostenten un interés legítimo que les afecte directamente.

Cuando se trate de acuerdos o resoluciones que afecten a una pluralidad de personas, se entenderá que está legitimado cualquier colegiado perteneciente al Colegio que lo ha adoptado. En todo caso, estarán legitimados para interponer Recurso los respectivos Colegios de Farmacéuticos del País Vasco respecto a los actos, acuerdos y resoluciones del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco.

Los actos y las resoluciones del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco agotan la vía administrativa y serán susceptibles de recurso ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en la forma establecida en las leyes.

Sección Sexta.– Reforma de los Estatutos.

*Artículo 25.–*

1.– Los presentes Estatutos podrán ser modificados a instancia de, al menos, una cuarta parte de los miembros del Pleno del Consejo o a propuesta de la Junta de Gobierno de un Colegio.

2.– Estatutuak aldatzeko eskabideak aldatu nahi denari buruzko proposamena jaso beharko du, bai eta aldatu nahi diren artikuluek zein idazkera izango duten ere.

3.– Estatutuak aldatzeko proposamena Kontseiluaren Osokoari aurkeztu beharko zaio. Horretarako, deia egingo zaio Osokoari, eta proposatzen den testu bana bidaliko zaie kide guztiei.

4.– Proposatutako aldaketa onartzeko, Osokoaren kideen gehiengo osoa beharko da; beharrezkoa izango da, gainera, elkargo guztietako kideren batek aldeko botoa ematea.

5.– Estatutuen aldaketak hiru elkargoek berretsi beharko dituzte, horretarakotxe deituko den Ezohiko Batzar Orokorrean.

Zazpigarren atala.– Desegitea eta likidazioa.

*26. artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Botikarien Kontseilua desegiteko eta ondarea, eskubideak eta obligazioak likidatzeko, 18/1997 Legearen 31. artikuluan eta hori garatzeko Eusko Legebiltzarrak ematen duen legean agindutakora joko da.

1.– Kontseilua desegiteko beharrezkoa izango da hiru elkargoetako ezohiko batzar orokorren erabakia; batzarrak deia egingo zaie elkargoei.

2.– Kontseilua desegiteko erabakian batzorde likidatzaile bat eratzea erabaki daiteke; hiru kidez osatuko da, elkargoen ordezkari banaz. Dena den, bai desegiteko erabakian bai batzorde likidatzailearen erabakian —eratuz gero—, dauden ondasun eta eskubideen norakoa erabakiko da: desegitea gertatzen den unean indarrean diren partaidetza-kuoten arabera izendatuko zaizkie kontseilua osatzen duten elkargoei.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak estatutu hauek onartzeko ematen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean estatutuak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa.–*** Estatutu hauek indarrean jarri aurretik hasitako zehapen-prozedurak aurreko araudiaren arabera izapidetuko dira ebazten diren arte.

***Bigarrena.–*** Kontseiluaren Osokoaren karguak izendatzeko 15 eguneko epea jartzen da, estatutu hauek indarrean jartzen direnetik zenbatzen hasita.

2.– La solicitud de reforma habrá de llevar consigo la propuesta sobre la que verse, con la redacción pretendida a los artículos afectados.

3.– La propuesta de modificación de Estatutos se presentará ante el Pleno del Consejo que será debidamente convocada al efecto, con remisión a cada uno de sus miembros del texto propuesto.

4.– Para la aprobación de la modificación propuesta se requerirá el acuerdo de la mayoría absoluta de los componentes del Pleno, siendo necesario además el voto favorable de algún miembro de la representación de cada Colegio.

5.– La reformas del estatuto deberán ser ratificadas por los tres colegios, mediante Junta General Extraordinaria convocada al efecto.

Sección Séptima- Disolución y Liquidación.

***Artículo 26.–*** Para la disolución del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, así como para la liquidación de su patrimonio, derechos y obligaciones, se estará a lo dispuesto en el Art. 31 de la Ley 18/97 y la Ley del Parlamento Vasco que lo desarrolle.

1.– La disolución del Consejo requerirá del acuerdo de las Juntas Generales Extraordinarias de los tres Colegios, convocadas al efecto.

2.– En el acuerdo de disolución del Consejo se podrá acordar la constitución de una Comisión Liquidadora, formada por tres miembros, uno en representación de cada Colegio. En todo caso, bien en el acuerdo de disolución, bien en posterior decisión de la Comisión Liquidadora, si se constituyese, se dará destino a los bienes o derechos patrimoniales resultantes, asignándose a los Colegios que integraban el Consejo en función de sus cuotas de participación en el sostenimiento económico del Consejo, vigentes en el momento en que se produzca la disolución.

DISPOSICIONES ADICIONAL ÚNICA

Los presentes Estatutos entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden del Departamento de Justicia, Economía y Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco que los apruebe.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera.–*** Los procedimientos sancionadores que se hubieran iniciado con anterioridad a la entrada en vigor de los presentes Estatutos del Consejo seguirán tramitándose hasta su resolución de conformidad con la normativa anterior.

***Segunda.–*** Deberá procederse al nombramiento de cargos para el pleno del Consejo en el plazo máximo de 15 días desde la fecha de entrada en vigor de los presentes Estatutos.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Estatutu hauek indarrean jartzen direnean indargabetuta geratuko dira Kontseiluaren Estatutuetan jasotakoaren aurkakoak diren estatutu-araudi eta araudi osagarri guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauetan jaso ez diren gaietarako, Espainiako Botikarien Elkargo Ofizialen Kontseiluan ezarritakora joko da, ordezko izaeraz aplikatuko baita.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de los presentes Estatutos quedarán derogadas todas las Normativas Estatutarias y Complementarias que se opongan a lo establecido en los presentes Estatutos del Consejo.

DISPOSICIÓN FINAL

En todo aquello no contemplado en los presentes Estatutos se estará a lo establecido en los Estatutos del Consejo General de Colegios Oficiales de Farmacéuticos de España que se aplicará como norma supletoria.

## Zk-3697

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 27koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Berohi, S. Coop. kooperatiba-sozietatea onuragarria dela aitortzeko.

AURREKARIAK:

1.– 2003ko otsailaren 21ean, María Teresa Gil Crespo andreak, Berohi, S. Coop. kooperatiba-sozietatearen izenean eta ordez, aipatutako entitateari onuragarritasun-aitorpena emateko eskatu zuen. Eskaerarekin batera, otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuaren 7. artikuluan zehazten diren betekizunak betetzeko galdatutako dokumentazioa ere aurkeztu zuen. Dekretu horrek, bestalde, kooperatiba-sozietate onuragarriei dagozkien prozeduren eta betekizunen erregelamendua onartu zuen.

2.– 2003ko martxoaren 12ko idatzi baten bidez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari txosten bat eskatu zitzaion, kooperatibari onuragarritasun-aitorpena emateari egoki irizten zion edo ez adierazteko, 64/1999 Dekretuaren 9. artikuluak xedatutakoa betez. Horri erantzunez, 2003ko maiatzaren 14an, Ingurumenaren Kalitatearen zuzendariak sinatutako idazki bat aurkeztu zen, non onuragarritasuna aitortzearen alde agertzen baitzen.

3.– Azkenik, 2003ko apirilaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez, espedientea jendaurrean jarri zen, interesatuta zegoen edonork espedientea aztertu ahal izateko eta alegazioak jarri ahal izateko hogei eguneko epean. Epe horren barruan, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Aurreko egitateei ezartzekoak dira ondorengo

## N°-3697

ORDEN de 27 de mayo de 2003, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Berohi, S. Coop.

ANTECEDENTES DE HECHO:

1.º Con fecha 21 de febrero de 2003 D.ª. María Teresa Gil Crespo, en nombre y representación de la sociedad cooperativa denominada Berohi, S. Coop., solicitó que dicha sociedad fuese declarada de Utilidad Pública. Se adjuntaba a la solicitud la documentación exigida para el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 7 del Decreto 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las sociedades cooperativas de utilidad pública.

2.º Por escrito de fecha 12 de marzo de 2003 se requirió del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 9 del Decreto 64/1999, que emitiera un Informe acerca de la procedencia o no de considerar a la sociedad como de utilidad pública. En contestación a dicho requerimiento el 14 de mayo de 2003 tuvo entrada un escrito, firmado por el Ilmo. Sr. Director de Calidad Ambiental, en el que se informaba favorablemente sobre la solicitud.

3.º Por último en el Boletín Oficial del País Vasco de 10 de abril de 2003 se abría un periodo de Información Pública para que cualquier persona interesada pudiera examinar el expediente y formular las alegaciones que considerase oportunas en un plazo de veinte días; vencido dicho plazo no se presentaron ningún tipo de alegaciones.

A los anteriores hechos son de aplicación los siguientes